

Haur hezkuntzako matematika arloko eduki minimoak

Haur hezkuntzako matematika arloko eduki minimoak **1630/2006 delako errege-dekretuak**⁽¹⁾ ezartzen ditu, ondoko hauek direlarik:

- Errespetuzko jarrerak edukiz, aztertze-zereginetarako interesa adieraztea.
- Objektu eta material ezberdinen atributuen hautematearekiko interesa izatea baita horien bidezko sailkapenak egitearekin ere.
- Lehenengo zenbaki ordinalen erabilpena.
- Bildumen kuantifikazioa.
- Kontaketaren bitartezko estimazioak eta kantitate manipulagarriei loturiko zenbaki kardinalen erabilpena.
- Elementuak kontatzeko ahozko zenbaki leloaren erabilpena.
- Eguneroko bizitzan zenbakiek duten garrantzi eta erabilgarritasuna balioestea.
- Neurketa eskatzen duten egoerekiko interesa adieraztea baita neurtzeko tresnekin ere.
- Denboraren gaineko estimazio eta neurketa intuitiboa.
- Eguneroko bizi-jarduerak denboran kokatzea.
- Testuinguruan nor bere burua kokatzea baita aldameneko objektuak ere. Mugimendu orientatuak.
- Forma zapal eta hiru dimentsiokoak identifikatzea. Oinarrikoen forma geometrikoen aztertzea.

Eta honetarako ezartzen dira hiru jakintza-arlo: *norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala, lengoaiak eta komunikazioa eta inguruaren ezagutza*. Azken honetan kokatzen dira arestian aipaturiko edukiak, betiere ondoko helburu orokor hau xede izanik: bilduma eta objektuak manipulatu, horien ezaugarri eta atributuak identifikatu eta kuantifikatu, sailkatu eta taldekatu-erlazioak ezarri, matematika ezagutzen hastea

Ebaluaziorako irizpideak

Haur hezkuntzarako ezartzen diren ebaluazio irizpideak, matematika arloarekin zerikusirik dutenak, ondoko hauek dira:

1. Testuinguru hurbileko objektu eta elementuak diskriminatu eta identifikatzeko gaitasuna adieraztea.
2. Objektuen arteko alde eta parekotasunak hautemateko gai izatea baita horien bidez objektuak taldekatu, sailkatu eta ordenatzeko ere.
3. Zenbait magnitudeen bidez eta zenbakizko segidaren laguntzaz objektuen arteko konparaketak egitea

Ebaluazio-irizpide hauen bidez balioetsi gura dira ondoko puntu hauek:

- Inguruko objektu eta materialak identifikatzeko kapazitatea.
- Aktibitate manipulagarrien bidezko aztertze-ekintzekiko interesa.
- Objektuen ezaugarri orokorrak (forma, kolorea, tamaina, pisua) eta portaera fisikoa (erori, pirritatu, lerratu, bote egin,...) arakatzea.
- Eguneroko bizitzan erroturiko problema matematikoak ebazteko ahalmena.
- Tresna manipulagarrien bidez oinarrizko zenbakien zentzu ordinal eta kardinalaren ulertzea baita eguneroko bizitzan erabiltzeko ahalmena.

- Espazioan orientatzeko oinarritzko kontzeptuen erabilpena (adibidez, goian, behean, barruan, kanpoan, urrun, hurbil,...) baita denboran (lehen, gero, goizez, arratsaldez,...) eta neurketan (pisutsuago, arinago, luzeago, laburrago,...) ere.

Bibliografia gehigarria: (1) <http://www.boe.es/boe/dias/2007/01/04/pdfs/A00474-00482.pdf>